

## ELIXABETE ETXANOBEREKIN BILERA

Atzo, irailaren 10ean, Guggenheim Urdaibai Stop herri plataformak Bizkaiko Foru Aldundiko ahaldun nagusia den Elixabete Etxanobe Landajuelarekin bilera izan zuen. Eskertuta gaude, Plataformak eskatutako bilerari baietza eman izanaz.

Herri plataforma zabal eta anitza garen aldetik, asko dira Guggenheim Urdaibai proiektuaren inguruan herritarrek helarazten dizkiguten kezka eta beldurrak. Era berean, hainbat izan dira proiektu horren inguruan zenbait administrazioetako ordezkarien ahotan entzun ditugun adierazpenak. Arduratsu jokatzuz eta proiektu horren inguruan ahalik eta informazio zehatzena eskuratzeko intentzioarekin joan gara bilerara.

Gure helburuak zehatzak izan dira. Alde batetik, **plataformaren aurkezpen laburra** egin dugu, gure helburua zehaztuz: Guggenheim Urdaibai proiektua, behin betiko, alboratzea. Garrantzitsua iruditzen zaigu ere **errespetuz tratatuak izan nahi dugula esatea**. Plataformak ez du inondik inora onartuko bere ahotan jartzea ez dagozkion adierazpenak. Ematen dugun urrats bakoitza ebidentzia argia eta publikoa delakoa.

Ditugun **kezka guztiak mahai gainean jarri ditugu eta hauek sortzen dizkiguten zenbait galdera ere partekatu ditugu.**

**Kezkak** horrela labur daitezke: gobernantza estiloa inositiboa; Biosfera Erreserben xedearen kontra aritzea; proiektua ez izatea inongo diagnostikoaren emaitza; proiektuaren existentzia eza; Natura 2000 sareko Babes Berezik Eremuan planifikatzea, zaurgarritasun handieneko eremuan; estuarioak erakusten dituen saturazio-ebidentziak; Planetaren mugak aintzat ez hartzea; diru publikoa helburu pribatuetarako xahutzea; museo eskualdeko beharrezanentzat erantzuna ez izatea; Biosfera Erreserbaren etorkizun osasuntsua proiektuarekin lotuz herritarrek manipulatzeko; prozesu partehartzaile zuritzaileak abiatzea; eta bertoko kulturaren galera bultzatzea.

Proiektu horrek daraman martxa kontuan izanda, berebiziko garrantzia dauka galdera eran partekatu ditugun zalantzak argitzea. Gaur ez da posible izan, galderek duten kutsu tekniko kontsultatu beharrekoa dela argudiatuz, baina, aurrerago, horretarako denbora egongo dela adierazi digute. Egutegi baten proposamena egiteko esan diegu. Hala bedi.

Ahaldun Nagusiaren esanetan, garatzen ari diren proiektua ona izango da eskualderako nahiz eta behin eta berriro esan proiektua ez dagoela erabat definituta, ezta erabakia, eta hainbat direla oraindik administrazioetan eman beharreko urratsak proiektu hori bideragarria egiteko. Izan ere, proiektu eza izan da argudio nagusia plataformak proiektuaren aurrean erakusten duen oposizioa ez dutela ulertzen adierazteko. Argia izan da gure erantzuna: Proiekturik ez izanda ere, proiektu hori osatzen duten zatiak ezagutzen ditugu eta bakoitzean eman diren urratsak ere bai, eta argi dago ez ditugula begi onez ikusten ez jarraitzen diren helburuak ezta egiteko moduak ere.. Benetako prozesu partehartzaile publikoen falta, eskualdeak dituen beharren inguruko diagnostiko konpartitu bat ez izatea, alternatiba ezberdinen planteamendurik eza... Hauek ezinbestekoak dira gobernantza eredu egokia izan dadin, inposizio bakoa. Guztiok berdintasunez eta hasieratik iritzia eman eta eztabaidatzeko aukera izanik, beti ere, herritarren zein lurraldearen egoera hobetzeko xedearekin. Erabakiak hartuta badaude, partaidetza prozesu publikoek ez baitute zentzurik. Amaitzeko, museoaren proiektua noren mesedetan bideratuko denaren inguruan ere, zalantza justifikatuak ditugula adierazi dugu, ez eraikitzearen alternatiba ez baitute sekula aintzat hartu. Guggenheim Bilbao Fundazioaren interes pribatuek ezin dute eskualde oso baten etorkizuna kolokan jarri.

**Bilera honek ez du proiektu horren inguruan dugun ideia aldatu, ezta gutxiago ere. Gaur konbentzituago gaude, proiektu hori inongo diagnostiko barik proposatutako okurrentzia bat besterik ez dela eta lege eta araudiak tolestu eta moldatuz, urratsez urrats bideragarri egiten saiatzen diren bitartean, kea saltzen digutela.**

**Guggenheim Urdaibai Stop**

**Busturialdean, 2024ko irailak 11.**